

KULTURA TOKI GARAPENEAN

CULTURE IN LOCAL DEVELOPMENT

LA CULTURA EN EL DESARROLLO LOCAL



As a Working Paper, it doesn't reflect any institutional position or opinion neither of EKAI Center, nor of its sponsors or supporting entities
EKAI Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.



1.Toki garapenaren ikuspegi oso murriztailea izaten dugu oro har, normalean toki garapena soilik ikuspegi ekonomiko edo merkantilista batetik begiratzen baita. Gehienez ere enpegua sortzek gaitasuna eransten zaio. Tokiko garapenean ordea faktore gehiagok daukate zerikusia, eta ukiezinezko eta bilakaera luzeagokoak gainera. Batez ere garapen sozialaz ari gara, eta honen baitan garapen kulturala kokatzen dugu.

2.Toki garapenaren ikuspegitik garapen sozio-kulturala eta garapen ekonomikoa batera ez tratatzea akats bat da, eta gainera egun bizi dugun krisiaren arrazoietakoa bat ere bada, alegia, logika ekonomizista gainerako gizarte kontsiderazioetatik aldentzeari hain zuzen ere.

3.Bestalde toki garapenari kulturak egiten dion ekarpena neurtzeko, edo behintzat ekonomia parametroak neurtzen diren moduan neurtzeko zailtasun handiak daude, esan bezala, bere lorpen nagusiak ukiezinezkoen arloan, balioenean, kokatzen baitira, eta epe luzeagoko bilakaera izan ohi dute eta.

4.Toki garapenaren ikuspegitik kultura politikak hiru paradigma nagusiren inguruan mugitu izan dira:

- Erakarmen paradigma
- Barreiatze paradigma
- Lurralde kulturaren paradigma

5.Erakarmenarenak kanpokoak lurralde jakin betara erakartzeko egin beharrekoa hartzen du aintzat. Hori horrela, helburua lortzeko monumentu, museo, erakusketa... balio enblematiko handiko ekintzak eta azpiegiturak edukitzea bilatuko du.

6.Barreiatze paradigmak berriz bertakoa kanporatzea, beste lurralde batzuetara hedatzea

bilatzen du, onurak berriz lurraldera bueltatuz. Hauen artean daude kultur industriari lotutako hainbat ekimen: liburugintza, arte plastikoak... Salmenta edo merkataritza zirkuituekin zerikusia duten ekintzak izan ohi dira.

7.Lurralde kulturaren paradigmari dagokionean berriz lurralde jakin bateko pertsona taldeen arteko balio konpartituak, proiektuak eta komunikazioa ahalbidetzen duen dialogoan oinarritzen da. Berez kulturaren garapenean ekarpen nagusia paradigma honen baitan topa daiteke.

8.Lehenesten den paradigmaren arabera izango da lurralde bakoitzeko politika eta garapenari egiten dion ekarpena. Ekarpenean hau ahalik eta zabalena izateko hirugarren paradigmak duen mobilizazio gaitasunari erreparatu behar diogu. Beste biek gizarte irismen eta eragin mugatua dute, eta kasuren batean gainera barne eragina kanpoko gizataldeen arabera izango da, ez derrigorrez sormenera bideratua gainera.

9.Beste biak baztertu gabe, eta beraien garrantzia aitortuta, hirugarren paradigmak, lurralde kulturarenak, du garrantzia handiena toki garapenaren ikuspegitik. Beronek eskatzen du zentzu partekatu bat eraikitzeke harreman sareak eta elkar guneak edukitzea, eta zentraltasun honetatik sortuko dira sormena eta originaltasuna. Izan ere hirugarren paradigma honen arabera antolatzen den kultura sektoreak eragina beste bien arabera espero direnak ere lor baititzake: kultur mugimendu indartsu batek berez edo bere sormenen bidez eduki dezakeen erakarmen indarra, eta produktuak kanpoan kokatzeko gaitasuna.

10.Finean kapital soziala sortzeaz ari gara, hau da, elkarlanean, sare egituretan eta elkarrekiko

As a Working Paper, it doesn't reflect any institutional position or opinion neither of EKAi Center, nor of its sponsors or supporting entities

EKAi Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

GARAIA INNOVATION CENTER, GOIRU 1, A2 MONDRAGON

TEL: 943250104

VITORIA-GASTEIZ 639641457

LEKEITIO 675701785

DURANGO 688819520

E-MAIL: info@ekaicenter.eu

facebook.com/EKAICentre

scribd.com/EKAICenter



konfiantzan oinarritzen diren gizarte harremanak sortzeaz, eta horretarako kulturaren ikuspegia aipatu dugun harremanen eta eragileen arteko komunikazioan oinarritzeko beharra dago.

11.Lurralde kulturarena ziur asko ez da ekarpenik ikusgarriena toki garapenaren ikuspegitik. Berez, lurralde kulturaren aldeko hautuak ikusgarritasun gutxi dakar, harremanak saretzeko eta konfiantza sortzeko ahalegin handia eskatzen baitu. Uzta epe ertainean jasoko da, eta honek esan nahi du ikuspegi politiko batetik, epe laburreko emaitzen beharra dagoen ikuspegi batetik, agian hain interesgarria ez izatea.

12.Bestalde zaila egiten da herri edo eskualde batean kultur kezka dutenei eta kultur eragile direnei hau azaltzea. Oro har administrazioek kulturarekiko izan duten joera inertziekin jarraitzea edo errentagarritasun politikora begirako proiektuak izan dira, gehienetan azpiegitura eta eraikinei begirakoak, edo sinbolo erakargarri eta indartsuei lotuak, eta ez zaio arreta berezirik jarri elkarlanari eta kultura ekimenari prestigioa emateari. Horren aurrean kultur eragile bakoitza bere jarduna ahalik eta txukunen aurrera ateratzera mugatu da. Nolabait esateagatik, eta asko orokortuz, eragileek beren baitan biltzeko joera izan dute. Modu honetan, eta kultur berrikuntza beste eragileekin konpartitu gabe, sormena eta originaltasuna apaldu egin dira, eta 'beti betikoa' egiten dela zabaldu da.

13.Kultur berrikuntza falta honen arrazoi eta ondorio ere bada belaunaldi berriekiko erakarmen falta. Hau da, kultur eragile gehientsuenek zailtasunak dituzte hogeitahogei hamar urteko jendea erakartzeko. Horrek egiten dena iraunkor egiteko arazoak ekartzeaz gain, originaltasun falta ere badakar.

14.Baina toki ikuspegi batetik, garapenerako garantia handiena zein den ere argi dago, batez ere kulturaren inguruko ehun soziala egituratzeko balio duelako. Lurralde kulturari zentraltasuna emateaz ari gara noski

15.Honela bada, kulturarekiko hautu politiko honek bi arazo planteatzen ditu batez ere: bisibilitate falta batetik, eta neurtzeko zailtasuna bestetik. Bisibilitate falta ukiezinezko onurak dakartzalako, ez direnak berehala eta zuzenean hautematen. Neurtzeko zailtasuna aldiz, berauek garapen indize klasikoetan duten eragina neurtzea zaila delako.

16.Merezi du neurgarritasunean unetxo bat geratzea. Mundu mailan kulturak duen eragina neurtzeko faktoreak ezberdinak dira batean eta bestean. Guri dagokigunez, Europan esate baterako faktorerik ikusgarrienei erreparatzen zaie: barne produktu gordinean duten eraginari eta enplegu kopuruari batez ere. Honek kanpoan uzten ditu ukiezinak diren faktoreak, hain zuzen ere gizarte kohesioarengan, kapital sozialaren sorreran eta garapenean eragina duten faktoreak aintzat hartzea. Beste erregio batzuetan ere hauek aintzat hartzen dira, baina ez dago batasun kontzeptualik.

17.Ikus daiteke kultur sormenari eta beronen ekarpenari buruzko estatistikarik ez dagoela, ezaugarri fisikoenak soilik hartzen baitira kontutan. Hau da, esfera ekonomikotik kanpoko kultur agerpena ez da aintzat hartzen. Horretarako ahaleginak egiten ari dira zenbait herrialdetan, Hego Amerikan batez ere. UIS (UNESCO Institute for Statistics) ere ari da batez ere garapen bidean dauden herrien kultur ekintza ageriko egiteko nahitik abiatuta –herri hauetan kultura erabat at dago BPGren neurketatik eta enpleguak nabari izateko moduan edukitzetik- hezkuntza, ezagutza tradizionala eta gordetzea

As a Working Paper, it doesn't reflect any institutional position or opinion neither of EKAi Center, nor of its sponsors or supporting entities

EKAi Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.



zein artxibatzea ageriko egingo duten neurketak prestatzen.

18. Edonola ere, eta kontzeptu eta kulturaren alderdi ukiezinari eta sozialari dagozkion faktoreak aintzat hartzeaz eta ahalik eta gehien batzeaz gain, ikuspegi politiko batetik beharrezkoa egiten da kultur sormena eta baloreen erreprodukzio eta berritzeari garrantzia emanaz gero gizarte kohesioaren ikuspegitik, identitatearen erreferentzialtasunaren ikuspegitik, ezagutzaren sorreraren ikuspegitik, eta ondorioz ekonomiaren sustapenaren ikuspegitik kultur eragile eta gizarte eragileen arteko elkargune fisiko eta fisiko ez direnak sustatzea programa konpartituen bidez eta proiektu bateratuen bidez batez ere.

19. Ikuspegi honetatik planteatutako kulturak jerarkizazioari ihes egin behar dio, eta eragile eta hartzaileen arteko koordinazioa bilatuko du, hau da, gobernu lokalena, herritarrena eta eragile kulturalena. Hauei bestelako eragileak ere erantsi dakizkieke, izan ere Garapenerako Kultur Politiken Gobernu Arteko 1998ko Konferentzian honakoa adierazi baitzen: *“Kultur politika, garapen endogenorako eta iraunkorrerako osagai nagusienetakoa denez, gizartearen beste arlo batzuekin koordinatuta inplementatu behar da ikuspegi integratu batekin. Garapenerako politika guztiak oso sentiberak izan beharko dira kulturarekin.”*

20. Noranzko honetan erabateko logika dute herritarren parte hartze estrategiek, integrazio hori bilatzen duten neurrian bai kultur arloan baita kulturarekin zerikusia izan dezaketen arloetan, kulturaren zeharkakotasuna xede izan daitekeen neurrian.

21. Bestalde komenigarria izan daiteke kultur ekimenei eta politiken orientazioa hedapen eta

erakarmen estrategiekin tarteratzea, batez ere azken bi hauek emaitzak ikusgarri egiteko duten ahalmen handiagoa dela medio.

As a Working Paper, it doesn't reflect any institutional position or opinion neither of EKAi Center, nor of its sponsors or supporting entities

EKAi Center seeks to do business with companies or governments covered in its reports. Readers should be aware that we may have a conflict of interest that could affect the objectivity of this report. Investors should consider this report as only a single factor in making their investment decision.

GARAIA INNOVATION CENTER, GOIRU 1, A2 MONDRAGON

TEL: 943250104

VITORIA-GASTEIZ 639641457

LEKEITIO 675701785

DURANGO 688819520

E-MAIL: info@ekaicenter.eu

facebook.com/EKAICentre

scribd.com/EKAICenter